

Noaia !!

www.noaia.com



Zazpi hilabete eta gero,
aske utzi dute Olatz Altuna



Joan da San Joan,
Gora Santixabelak!

Tabakalera, orain bai.

Gure irudimena abiarazi. Arteari, abangoardiari
eta esperimentazioari ateak zabaldu.

Hori da efektogipuzkoa.

2007/2011 Kudeaketa Plana

efektogipuzkoa



GIPUZKOA

2007/2011 Kudeaketa Plana

Albistea iruditan !!

San Joan sua, euripean

Euri tanta, haize eta tximista artean piztu zuten San Joan sua Kalezarren, beste hainbat lekutan bexalaxe. Hala ere, herritar ugari hurbildu zen ikustera. Bertan ziren eskean ateratakoak ere, ongi babestuak hori bai, argazkian ikus daitekeen bezala.

Okerragoa izan zen aurreko larunbatekoa. Ornitorrinkus ikuskizuna iragarri genuen NOAUA!tik, baina Dema plazan egin beharreko ekitaldia hasi baino lehen, ekaitzak soinu ekipoa busti zuen eta bertan behera utzi behar izan zen bertsoz eta musikaz osatzen den ikuskizuna. Maialen Lujanbio eta konpainia beste batean bueltatzeko asmoa azaldu zuten. Ea hurrengo batean, zorte hobea dugun...



EGURALDIA KASKARRA IZAN ZEN BAINA ESKEAN IBILI ZIRENEK EZ ZUTEN HUTSIK EGIN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

OILASKO BILTZAILEEN USADIOA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

LEGEGINTZALDIKO LEHEN URTEA **8. OR.**

ATEZ ATEKO ESPERIENTZIA MALLORKAN **12. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

Baikor izateko argudioak

Baikor izateko dekalogoia osatzen hasi naiz. Bai. Ez dira garai onak. Badakit. Etsipenean bizi gara aspaldian. Eguraldi adituiek iragarritako eguraldi on hori nekez iristen da gure herrira. Lainopean pasa ditugu aste, hilabete eta urte gehiegi, eta bereziki gertaera, albiste eta sentsazio ilunen artean. Ruper Ordorikaren kantu bat jartzen dut askotan adibide gisa: "Inork ez zidan esan / Euskaldun izatea zein nekeza den, / Hobe nuela hautatzea / Munduko hiritar izatea".

Kantu honen inguruan Ruperrek berak egindako adierazpen batzuekin, seko harritura geratu nintzen duela egun gutxi. Maiatzaren 25ean, egunkari batean elkarrizketa egin zioten Oñatiko kantariari. Letra hori idatzi zuen garaian baino nekeza goa ote zen gaur egun euskaldun izatea galde egin zion kazetariak. DVko kazetariak, ordea, ez zuen kantua bere kontestuan kokatu (nahi izan). Izan ere, Euskaldunon Egunkaria itxi zuten garaian idatzi zuen abesti hori Ruperrek eta, diskoaren aurkezpenean, halaxe adierazi zuen. Garrantzia handia duen detailea, bereziki, Euskaldunon Egunkaria itxi zutela 5 urte bete direnean (kazetariak aukera ona zuela elkartasun keinu bat egiteko, alegia). Baina goazen harira. Galdera hori irakurri eta Ruper Ordorikaren erantzuna irakurtzeko larritasuna sentitu nuen bapatean. Nire harridurarako, hauxe izan zen bere erantzuna: "Bueno, digo esas cosas en mis canciones con más o menos humor para hacerme el interesante... En realidad todos sabemos

que ser vasco es una gran suerte".

Lehen kolpean, baikortasuna nitaz bereganatu zen. Eta segidan, erantzun horren atzean zeuden arrazoien bila hasi nintzen.

Eta sinetsiezadazue, zorionekoak garela pentsatzeko hainbat eta hainbat arrazoi bururatu zitzaizkidan. Esate baterako, euskaldun ez direnek nekez gozatuko dute Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolarien abileziarekin. Urte eta erdiz, plazaz plaza ibili dira Gu Ta Gutarrak, bertso-kanten ikuskizun aparta eskainiz (Usurbilen, bitan, eta bi saioak Sutegin). Lehengo astean, "despedida" eskaini zuten Durangoko Kafe Antzokian. Akabo. Orain bertsolari moztaroen sartuko dira berriro Iturriaga eta Elortza.

Bi *tunante* horien kantu batean aurkitu dut nire dekalogorako bigarren esaldia: "bizitza da bakarra ta ez ditu bi bide baikik: triste bizi zintezke edo erdi pozik".

Ekainaren 18an, Olatz Altuna aske utziko zutela jakin nuenean, pozak hartu ninduen. Erdizka ez, oso pozik jarri nintzen. Zoritxarrez, kaleratzeak baino espetxeratzeak gehiago izaten dira. Eta bateko eta besteko bidegabekeriak ere, aukeran, ugari. Baina zorigaitzoko garai hauetan, euskaldun jendearen elkartasun ahalmena garatu delakoan nago: Olatzen etxekoek zazpi hilabete hauetan jaso duten laguntza, Bruño ahizpei azken egunotan eman zaien babes zabala... Horra baikor izateko hirugarren argudioa. Tira, nire dekalogoia ari da itxura hartzen, ezta?

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !!

...eta horrela urteko aste bukaera bakoitzean

Aurreko aste bukaeran bezalaxe, datorrean ere euskaldunok milaka kilometro egitera beharturik egongo gara. Berdin dio zein hilabete edo urte sasoi egokitzen den. Batzutan txingorra, bestetan elurra edo jela, zenbaitetan eguzkia edo eguraldi ederrarekin. Hainbatetan trenean, autobusean, autoan edo hegazkinean goazela iluntzea edo egunsentia ikusten dugu. Helburuak merezi du eta ez ditugu bakarrik utziko.

Bai, helburuak merezi duelako lehengo aste bukaeran Andaluziako espetxe aurrean elkartu ginen. Han dauzkaten euskaldunei elkartasuna adieraztera joan ginen. Gutxi batzuk burdinazko barroteak dituen kristalaren beste aldean ikusi eta hitz egiteko aukera izan genuen eta konturatu ginenerako, denbora amaitu zela esanez, begien aurretik ezkutatu zizkiguten euskaldunak. Gu berriez, gozo-gaziz irten ginen espetxetik eta bizitako une laburraren berri eman genien kanpoan zeudenei.

Itzulerako bideari ekin aurretik Mayirekin geldituta geundenez, jarritako hitzordu gunera hurbildu ginen autobusean gindoazenok. Izebari eskutik heldu eta saltoka zetorren bost urte betetzen zituen neskatila. Gure ingurura hurbildu zirenean, "zorionak zuri..." abesten hasi gatzazkidan eta neskatila apur bat lotsati gelditu zen izebaren babespean.

Orduan, guretako bat poltsatxoarekin hurbildu eta "Porrotzek zuretzat eman dizkit" esan zion Mayiri. Bera poltsatik zer ateratzen zen begira jarri zitzaion eta posterraren ondoren kamiseta ikusi zuenean "Ikastolako lagunak berdina dauka" esan zion begiak pizten zitzaizkiolarik. Beste kamiseta zegoen eta ama edo aitarentzat zela erantzun zion oparigileak. Ondoren, poltsatxoan zegoen Porrotxen panpina ikusi zuenean, Mayiren aurpegia alaitu eta begien distira panpinarentzat izan zen.

Porrotxen opariekin gozamenean goxo zegoen Mayi, eta guk itzulerako bideari heldu

eta autobuseko kristaletik eskuak astintzen geundela, izebak zeukan poltsatik Porrotxen panpina atera eta saltoka hasi zen Mayi.

Gero, izebari eskutik heldu eta arratsaldeko bostetan espetxera sartuko zen Mayi bere ama musukatu eta besarkatzera. Ziur, amari ere aurpegia alaitu egingo zitzaiola Mayi horren pozik ikustean.

Amarekin une goxo eta hunkigarriak igaro ondoren, izebarekin etxera hurrengo egunean itzuliko zen neskatila. Gu, Mayik egin behar izan zituen bi mila eta berrehun kilometroak egin ondoren, hogeita hamahiru ordura iritsi ginen etxera.

Gogortasunaren garratzasunean bizitutako une xamur asko dira Euskal Herrian, eta Mayik erakutsi digunak arnas berritu gaituzenez, Zorionak Mayi, eta ez ditugu bakarrik utziko ozen oihukatuz, gero arte esaten diegu.

Orkatz

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuz eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

Oilasko biltzaileak, belaunaldiz belaunaldi

Nora goazen jakiteko, nondik gatozen jakitea ez dago gaizki. Azken urteotan, jendetza bildu da oilasko biltzaileen festan. Baina ondo legoke gogoraraztea nondik nora datorren usadioa. Hemerotekara jo dugu eta 1996an aldizkari honetan bertan bildutako artikulua oso egokia iruditu zaigu. Berritza Barrenako Mujikatarren ibilbidea gogora ekartzen duen artikulua.

“Usurbilen aspalditik ezagutzen da oilasko biltzaileen eguna. Baina beti ez da era berean egin. Gaur egungoa eta duela 50 urtekoaren artean desberdintasun batzuk badaude. Eta hori argi ikusi dugu San Estebango Berritza Barrena baserriko Mujikatarrekin hitz egin ondoren.

Orokorrean, oilasko biltzaileen zeregina berdina izan da beti: goizeko 6etan atera eta baserriko baserri oilaskoak biltzen joatea. Baina, noski, horren truke dantza pixka bat eginez. Julio Mujikak lehen, buelta txikiagoa ematen zela dio: “San Esteban eta Aginagara besterik ez ginen joaten, eta kalekoak ere ez ziren San Estebanera etortzen. Orain, berriz, San Estebanetan eta Santixabeletan, bietan etortzen dira”. Ikerren ustez, horren arrazoiak da orain

jende gehiago ibiltzen dela. “Horregatik bi taldetan banatu eta bi buelta desberdin egiten ditugu: bata Arratzain aldera eta bestea San Estebanera”.

Egia esan, jende gehiago ibiltzen da orain, neskak ere tartean izaten baitira. Baina lehen ez. “Ez, ez, neskak ez ziren ateratzen. Soka dantzan bai, baina oilasko biltzen ez”, baieztatzen du Juliok. “Eta afaltzen ere mutilak bakarrik izaten ginen”.

Trikitilariak eta bertsolariak lagun dituztela ibiltzen dira orain lehen bezalaxe.

Arropa berezirik ere ez omen zuten orduan. “Ez ginen mahoiko galtzak eta alkandora zuria jantzita ateratzen. Bero handia egiten zuen eta mauka motzetan askotan”.

Goiz guztia baserriko baserri ibili ondoren, iluntzeko afariaren poza geratzen da, bai orain eta baita lehen ere. “San Estebango plazan bukatzen genuen buelta”, dio Juliok. “Plaza erdian zuloa egiten genuen, ohol bat jarri zuloa eginda, azpian oilaskoak jarri buruak gora aterata eta karteroak ttunttuna jo bitartean, matxetearekin lepoa moztzen genien”. Ondoren, Txokoaldeko Ximonenean prestatu eta afaltzera hara joaten ziren.

“Orain harategira eramaten dira luma-



BERRITZA BARRENAKO MUJIKATARRAK, 1996AN NOAUA!RAKO EGINDAKO ERRETRATUAN.

tzera eta beste egun batean afaltzeko aprobetxatzen dira”, Ikerrek esandakoaren arabera. Beraz, jan gabe ez ziren gelditzen ez lehen eta ezta orain ere.

Hala ere, iazko Santixabel festetan Berritza Barrena baserriko oilasko biltzaileak kotxez joan zirela esan digute. Ez al da benetan lotsagarria? Merezki ote du horrela etortzen direnei oilaskoak ematea?

Badaezpada, aurtengo oilasko biltzaileei txukun-txukun prestatzen saiatu eta itxura antzera eta “pulamentuz” agertzea eskatuko nieke. Eta esan beharrik ez dago, oinez noski”. NOAUA!, 1996ko ekainaren 28an.

Ba hori ondo pasa, pasatu gabe. Eta errespetsuz ibili!

Ika-mika !

Haur Eskolako gurasoak Udarregin txertatzearen alde

Gutun honen bidez, Udarregiko partaideei zuzentzen gataizue bereziki, hil honen 30ean egingo duzuen asanbladan, zuen erabakia hartu aurretik, gure iritzia zuen irizate nahi dugulako. Azken finean, Haur Eskolako gurasoak, etorkizunean, Udarregiko gurasoak izango baikara.

Usurbileko hezkuntzako arazoak lantzeko asmoarekin hezkuntza mahaia eratu zen urte hasieran. Burututako aurreneko bi bilerekin, bi erabaki hartu ziren. Gaiaren premia ikusita, Haur Eskolako gaia monografiko bezala hartzea lehena. Zeuden aukerak mahai gainean jarri ondoren (Haur Eskolen partzuergoa, zegoen bezala jarraitzea, Udala eta Ikastolaren artean partzuergo bat sortzea, Ikastolak Haur Eskola bere baitan hartzea...), Haur Eskola eta ikastola txertatzea bideragarria ote zen aztertzea agindu zitzaizkien Udarregi eta Haur Eskolari bestetik.

Erabaki horretan oinarrituta, bi proiektuen txertatzea ahalbideratuko lukeen prozesua jarri zen martxan. Hilabete luzeak,

hamaika bilera, eztabaidak eta zailtasun ugariaren ostean, akordio bat lortu zen Udala, Udarregi, Haur Eskolako langile eta Haur Eskolako gurasoen artean. Akordioan, Haur Eskola Udarregin txertatzeko baldintzak jasotzen dira.

Hurrengo pausua, alde bakoitzaren organo erabakitzaileen berrespina lortzea izan da. Haur Eskolako gurasoen asanbladari dagokionez, bertan geunden guztion aldeko botoa jaso zuen.

Ez al zen zalantzarik egon? Nola ez, eta agian gauzak hobeto egin izan balira batzuk argituak eta erabakiak hartuta egongo lirarteke. Baina erabaki hau ez dugu bide baten bukaera bezala hartzen, guztiz kontrakoa, bide baten hasiera bezala baizik. Hezkuntza mahaian parte hartu dugun guztiok gauza batetan ados egon baldin bagara, Usurbileko 0-16 proiektua eraiki nahi dugula izan da. Eta proiektu hori eraikitzen denbora, informazio, eztabaida eta erabaki asko behar dira.

Orain eman nahi den pausu txiki edo handi hau 0-16 proiektu horren bidean emandako beste pausu bat bezala ikusten dugu. Eta agertzen diren zalantza eta zailtasunak hurrengo urteetan argituko direla ziur gaude, horretarako guztion borondatea baitago.

Txertatze hau posible izango ez balitz, gure ustez, aukera historiko bat galdu egingo genuke. Haur Eskolako gurasoak, orain arteko proiektuarekin jarraitu nahi dugu, uste dugu gure umeentzako oso proiektu ona dela, pozik gaude berarekin.

Udarregi ere asko du irabazteko. Usurbil herriak berak bezala. Beraz, Haur Eskolako gurasoen ordezkarien izenean akordio honen alde egiteko deia egiten dizuegu, bakoitzari dagokion tokian. Eman dezagun 0-16 proiektuaren alde beste pausu bat. Har dezagun konpromisoa agertu diren zalantza eta zailtasunak Hezkuntza mahaian argitzeko.

Joseba Belaustegi eta Alain Urizar

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Laster festak!



Zertaz hitz egin ez dakigunean, eguraldiaz jarduteko joera dugu. Azken aldiz txoko honetan idatzi nuenean, orduan ere, eguraldiaz aritu nintzen eta NOAUA! kaleratu zenerako ikaragarriko aldaketa izan genuen, beraz, hobe izango dut honetaz ez idaztea.

Maiatzean hasi eta ondorengo hilabeteak alaiak izaten dira normalki: egunak luzatzen, ekitaldi desberdinak (normalki janariarekin erlazionatuak), eta nola ez, festak!

Behin Sagardo Eguna pasatzen denean, badirudi badugula gorputzean martxan jartzen den "txip" moduko bat. Eta, berehalaxe, konturatzerako, Kalezarren San Juanak.

Kalezarrek antzekotasun asko ditu gure auzoarekin eta horregatik gustura azaltzen naiz bertara. Badakit eta pixka bat, zer den ilusioz festak antolatzea eta jendeak herri handiagotara joateko joera azaltzea. Ematen du bai halako amorrua horrek!

Eta behin San Juanak pasata, herriko jaiak, Santioak eta Sanestebanak. Hilabete eta egun gutxi hauek ere iristeko. Eta nahiz eta gauzak lotuta izan, orain egitarauak prestatu eta inprimatzea tokatzen da, edari eta gainerakoen eskaerak egitea, azken xehetasunak lotzea eta ematen du halako nagitasu-



na egia esan.

Baina Kalezarko plazan gustura nagoen bezala, Sanestebaneko plazan ere jendea halaxe sentitzea gustatuko litzaidake eta honek sortzen duen ilusioak ezabatu egiten du gorputzean sartzen den nagitasun hori.

Beraz, badakizue, abuztuko lehen egunetan denok San Estebanera!

KALEBERRI

IRATI PORTU

Kaixo Santixabel!



Mantsoago edo azkarrago joan dela iruditzen arren, aurtengoan ere pasa zaigu urtearen erdia, eta honekin batera, nola ez, hementxe dugu berriro ere gure Ixabel ate joka. Hala ere astebete azkar pasatzen da eta etorri bezala joango dira batzuen algarak eta parrandak eta besteen buruko minak.

Herrian han eta hemen entzuten dira (ni neu naiz lehenengoa horretan) programari buruzko kritika onak zein txarrak. Bat ona egiteagatik, pertsonalki desiatzen nago "Sarrailaren giltza" herri antzerkia berriro ere ikusteko aukera izateko. Programari buruzko kritika txarrei dagokienez, politagoa edo eskasagoa irudituta ere aurtengoan halaxe beharko du eta denon eskutan dago herrian giro polita sortzea.

Ondo pasa Santixabelak!

Eta gorde indarrak atzetik etorriko diren Santioak, San Extebanak, Atxegaldeko festak, Santuenekoak, San Praxkuak... Ai ene, eskerrak San Joanak behintzat joan diren.

ATXEGALDE

MAJESUS URBIETA

Bartzelonan jardunaldiak

Pasa den astebukaeran ahaztu ezinako bidaia egin genuen. Bartzelonako Palau Sant Jordi aretoan 17.000 persona bildu ginen "Extravaganza 2008" jardunaldietan. Bertan Europa, Los Angeles, Kalifornia, Afrika eta beste herrialde batzuetako zientzietan adituak elkartu ziren. Zientzia berrikuntza eta garapenean lanean ari diren hainbat eta hainbat zientzialari, mediku eta tartean Nobel saridunik ere bertaratu ziren. Gizarteak osasuntsu egoteko behar dituen janari eta osagarri naturalez mintzatu dira.

Azken 28 urteetan eta mundu mailako 69 naziotan egiten duten lanaz aritu ziren gogotsu eta bertan azken berrikuntzen berri jakiteko aukera izan genuen. Horietako bat H3O PRO edari isotoniko potentziadore berri bat. Kirolean edo edozein goi errendimenduko ekintzetan erabiltzeko egokia.

Hemen 20 urte dira produktu hauek ezagutu genituela eta horregatik ospatu dute Bartzelonan astebukaerako jardunaldia. Jendearen artean disziplina handia nabari zen eta aipatzekoa Frantzia, Alemania, Britaina Handia, Suedia, Holanda, Errusia, Serbia, Israel, Ukraina eta tartean Euskadiren presentzia.



KALEZAR

MADDI GALBETE

Bilbo eta Usurbil artean



Kurtso oso bat daramat Bilbon bizitzen, Knire bigarren etxea eta familia bilakatu den erresidentzia honetan.

Eta Kalezar baino gehiago, hauxe da aurtengo nire auzoa, ez handiegia, baina bertan bizi garenok familia eder bat osatzen dugu.

Beti entzun izan dut gazteon bizitza ona dela, urte hauek direla benetan ondo aprobetxatu behar direnak, erokeriak egiteko, ondo pasatzeko...

Egia da batzuetan faltan botatzen dela bertakoa, familia eta lagunak... Baina azken batean hemen ere elkarren laguntza daukagu, eta horrek babestu egiten gaitu, eta ziurtasuna eman, denok baitakigu beti izango dugula gure herrietara bueltatzeko aukera.

Hala ere asteburuak gogotsu itxaroten ditugu, bueltatu eta gureekin elkartzeko, aste osoko anekdotak kontatzeko edo gurasoen mimo batzuk jasotzeko.

Gauza bera gertatzen zait igandetan Bilbora bueltatzen naizenean, gogoia izaten dudala gehienetan, hemengoekin biltzeko irrika.



Gaur igandea da, asteburua Bilbon pasa dut eta astea aurretik dugu. Badakit ordea ostegunean bueltatuko naizela eta betikoekin elkartzeko naizela, gogotsu eta pozik.

Ez da Bilbo edo Usurbil, ez da Kalezar edo Unamuno, biak baizik.

Eta horrela, zoriontsu naiz.

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Lesakan egun pasa



Aginagan azken aldian ez ditugu berri oso onak izan, jakina da Blanka eta Maribel atxilotuak izan direla... Hemendik, animoak eta besarkada bero bat bidali nahi nieke bi ahizpei eta euren familia osoari!

Gaia errotik aldatuz, udan sartzearekin batera, ekainaren 21ean, larunbata, zenbait aginagatar Lesakan izan ginen egun pasa!! Goizeko 9 t'erdietan irten ginen autobusez, 20-25 pertsona, adin guztietako jendea zegoelarik tartean, haurrak, gaztetxoak, gazteak, helduak... Lesakara iritsi eta zuzenean bertako igerilekura joan ginen. Esan beharra dago ikaragarritzko eguraldia egun zuela eta egun biribila atera zitzaigula. Eguerdira arte uretan ibili ondoren, alboko zelaian bazkaldu genuen, bazkaltzerako garaian zuhaitz azpiko giroa ezinhobeia izan zelarrik eta gaztetxoak berriro ere uretara.



Eguna amaitzeko, futbol partidan parte hartu genuen guztiok. Heldu eta haur denak nahasian, epaile eta guzti, hemen argazki bat horren adibide moduan.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Enarak

Zuberoan, joan den mendean, espartinak Zedo alpargatak egiteko fabriketara, batez ere, inguruko emakume gazteak joaten ziren lanera. Garai haietan, eta ez gara ari mendeko azken urteez, asko eta asko Nafarroatik eta Aragoitik abiatzen ziren, multzoka eta oinez.

Horrela udazkenean Zuberoara iritsi eta hurrengo udaberrira arte han gelditzen ziren. Eguraldi onarekin beren etxeetara bueltatzen ziren baserri lanean aritzeko. Zuberotarrek halako emakumeei izena eman zieten: enarak.

Larunbat iluntzean, bizpahiru ziento lagun bildu ziren Zubietako frontoian. Ekuadorreko herri batekoak ziren: Otavalokoak. San Juan festa ospatu nahi izan zuten beren ohi-turen arabera: koadrilan dantza egin erritmoari jarraituz. Urruti daude haien herritik, sobera maite ez dituen Europa honetan.

Ez ginen luze egon begira. Haien ondo pasatzeko egiten zuten dantza, ez begira geundenentzako: ez dute "Informacion y Turismo" bulegorik. Eta gu, begira, aspertu. Bizpahiru ziento enara.

Badira enara gehiago Zubietako bazterrotan, turismo ez beselako arrazoiengatik bere etxetik urrun daudenak: piperrak biltzen, etxeak garbitzen, gure helduei laguntzen... Tarteka berri pozgarriak ere bai: neguak eraman zuena udak, berandu bada ere, ekarri duelako. Zuberoan garbi dute: Oriko txoria, Orira.



Legegintzaldiko lehen urtea bete da

Udalgintzan modu argi eta gardenean lanean jarraitzea. Hori da udal gobernu taldearen aurrera begirako erronka nagusia. Urtebete pasa da, iazko maiatzaren 27ko udal hauteskundetan herritarren gehiengoak EAE-ANVri babesa eman zionetik. 365 egun, udal gobernu taldeak zegozkion eserleku eta ardurak hartu zituenetik. Atzera begira jartzeko garaia da.

Damokles ezpata gainean dutela jardun dute azken urtean udal gobernu taldeko kideek. Hala dio, alkate Xabier Mikel Errekondok: “mehatxupean, bultzada politikoak eragindako auto bat eta beste bat atzetik izanda”. Alde horretatik, kartzelaratu izan den Arrasateko alkateari elkartasuna adierazi nahi diote. “Besarkadarik handiena, iritzi politiko bat izateagatik kartzelan dagoen Ino Galparsorori”, adierazi du



HILEROKO OHIKO PLENDETAN EZTABAIDATU DITUZTE HAINBAT EGITASMO.

Errekondok. Egun, gainontzeko herrietan bezala, Usurbilen ere Damokles ezpatapean dihardute udal kudeaketan. “Nahikoa genuke EAE-ANVren izenean udal talde gisa zeribait sinatzea, Damokles ezpataren

azpian erori eta gartzelaratuak izateko”.

Udal gobernuak karguak hartu zituenetik urtebete igaro den honetan, hau da arloz arlo egiten duten hausnarketa.

KIROLA

“Erabiltzaileen beharrak asetu”

Kiroldetik erabiltzaileen beharrei erantzun eta zerbitzuak hobetu asmoz, osatu da udal kirol patronatu berria. “Gogo handiko patronatua hasi da. Gelditu gabe ari dira lanean”, adierazi du alkateak. Kiroldetia eguerdiko zabalik mantentzeko asmoa dute. Eta ordu horietan kirola egitera doazenei bertan bazkaltzeko aukera eman nahi zaie. Horretatik, bazkariak emateko ahalmena duen kafetegia martxan jartzeko lanak burutu nahi dituzte. Azterketa teknikoak egiten ari dira.

Bestalde, Buruntzaldetik lanean jarraitzeko apustua egiten dute, zerbitzu osagarriak eskaintzeko. Herriko hainbeste kirol taldeen ekarpena goraiatu eta horien lana babesteko konpromisoa hartzen dute.

EUSKARA, KULTURA

“Laguntzak indartu eta Aholku Batzordea martxan jarri da”

Alorreko eragileak biltzen dituen **Kultura Aholku Batzordea martxan** dago, alkatearen esanetan, “indartsu eta gogo biziz hasi dena”. Helburu, kultur eskaintza diseinatu, kultur dinamika sustatu herri partehartzailea bultzatuz, taldeen arteko koordinazioa hobetu, eta abar. Lehentasunezko egin beharra, kultur gunea izango den **Potxonearen** proiektuaren diseinuan erabakiak hartzea da.

Jaietako ekintzak ere aipatu behar. Hastear diren **Santixabel jaien inguruan, gastu kopurua zorroztu** eta mugatu dute. 2003an 35.000 eurotako aurrekontua bideratu zen herriko jaietara. Iaz, 90.000 eurotako partida planteatu arren, Errekondok gogoratzen duenez, “120.000 eurotarainoko gastua izan zen. Udal kudeaketan axolagabekeria galanta eman zen”. Diruak soilik ez du ezinbes-

tean ekartzen jai hoberik. Jai Batzordean herritarren parte hartze handia izan da eta bertatik egin den ahalegin bereziari esker lortu da 80.000 eurora jaitsitako aurrekontua errespetatzea.

Euskararen alorrean, **UEMA indartzearen aldeko apustua** egiten jarraitu nahi dute. Aipatzekoak baita, Udaletik erdarazko dokumentuak euskaratzeko egiten den lana. Eta euskara ikasten ari direnei eskaintako **diru-laguntzak**; matrikulazioetarako %20an indartu dituzte. Hala, gaur egun, laguntza orokorrak %80 dira (lehen %60). Langabetu eta ikasleen kasuan %100 (lehen %80) dira.

Aurrera begirako proiektuak, honakoak: fototeka martxan jartzea, haur eta gaztetxoentzako ludoteka zerbitzua, ondasunen katalogoa osatzea, Potxoenea kultur etxea abiaraztea.

HEZKUNTZA

“Haur Eskolarentzat, epe luzerako irtenbide adostua”

Konponduta zegoelakoan, dena korapilatu eta nahasi zen. Hitz horiekin laburbiltzen du alkateak, udal karguak hartu eta berehala, **Haur Eskolak** zuen egoera. Bilera ugari-eren ostean, behin behineko irtenbide bat adostu zuten irakasleek, gurasoek eta Udalak. Une honetan, epe luzerako proiektuari forma eman eta erabakitze fasean dago gaia. “Adostasuna badago eragileon aldetik”, adierazi du alkateak. Hamabi urtetarako esleipena onartzea litzateke erronka. 0-3 hezkuntza eskain-

tza bermatu eta langileen egoera egonkortzeko. Apustu estrategikotzat jotzen du udal gobernu taldeak, 0-16 urte arteko hezkuntza integrala eskaintzeko bidean. Gurasoek ordaindu beharreko kuota jaisteko lan esker gaia egin dute guztiek: 300 eurotik 240ra jaistea lortu dute.

Haur Eskolaren etorkizuna konponitzeko lehentasunarekin jarri zen abian **Hezkuntza Mahaia**, alorreko herriko eragileekin. Garrantzitsua, alkatearen esanetan, “herri baten izaera, hezkuntzatik datorrelako”.

Aipatzekoak bestalde ikastetxeetan egin diren lanak: **Udarregi** eta **Agerialdeko galdarak berritu dira**.

“Aginagako Herri Eskolaren berrikuntza *pasa zitzaigun* beste enkargua izan zen”. 160.000 euroko aurrekontua zegoen, baina alkatearen esanetan, “dirurik ez”. Eskolako zuzendaritzarekin harremanetan jarri ziren, benetako beharrak zeintzuk ziren jaso eta aurrekontu xume batekin, “herri ikastetxe dotorea gelditu da. Guraso eta zuzendariaren zorianak jaso ditugu”, adierazi du Errekondok.

GAZTERIA

“Udalak baliabideak, gazteek inizatiba”

Larria da herrian ematen den drogen arazoa. Langabezia eta etxebizitzaren arazoak ere zuzenean kolpatzen ditu herriko gazteak. “Ulertu behar dugu ez dagoela formula magikorik horiek konpontzeko. Bestalde, beste makina bat arazo ere baditu usurbildar gazteak. Udala baliabideak jarri eta laguntzeko prest dago baina, gazteak ulertu behar du arazoei aurre egiteko inizatiba berea izan behar dutela”, adierazi du alkateak. “Txikiak badira ere urratsak ematen hasi behar gara”, dio.

EMAKUMEA

“Benetako berdintasunaren aldeko apustua”

Egunerokotasunean arlo guztietan emakumearen benetako berdintasuna lortzea dute helburu. Alde horretatik, jada aurrekontuetan onartu dute berdintasunerako teknikariaren lanpostua. Horrek azterketa soziologikoa egin eta berdintasunaren plana osatzea ahalbidetuko luke. Emakumeek pairatzen dituzten tratu txarrak ez dira herrikanpoko arazoak soilik, “Usurbilen ere emakume gutxietsiak daude”, adierazi du alkateak. Horren aurka borrokatzeko Udalak bere esku dituen baliabide guztiak erabiliko ditu.

INDUSTRIA

“Elor, herriko industriagune berria”

Michelineko 530 lanpostuen Mgaleraren aurrean, lanpostu berriak sortzeko konpromisoa hartu zuten Usurbilgo eta Lasarte-Oriako Udalek. Asmoa, Belartza ondoko Elor lur-eremuan industria gunea sortzea litzateke. Fagor enpresa parean. Aipatu zonaldera lekuz aldatu nahi du Igepak enpresa, arriskutsua izanik, herri gunetik ateratzeko. Beste hainbeste Txokoaldeko Berriola enpresaren inguruan ere. Auzotik lekuz aldatu nahi du Udalak eta gunea hura jolastoki, etxebizitza edota ekipamenduetarako baliatu.

GIZARTE ZERBITZUAK

“Zerbitzuak indartzeko beharra”

Udal datuen arabera, Usurbilgo biztanleria zahartu egin da. Azken mende laurdenean, 65 urtetik gora dituzten herritar kopurua bikoiztu da. Ondorioz, adin tarte horretako beharrak ere handitu dira. Horren lekuko Eguneko Zentroa. Astegunetan 12 plaza ditu eta beteta dago. Aurten asteburuetan ere zabaltzen hasi dira. Eskaintzen dituzten 6 plazetatik lau beteta daude. “Zabaltzeko premia

dago”, adierazi du alkateak. 25-30 plazetara handitzeko asmoa du Udalak. Etxez etxeko zerbitzua 33 herritarrek jasotzen dute.

Horrekin batera, gerontologia erresistentzia egiteko aukera dago, mojen komentuan hain zuzen. 135 plazez osatutako eskaintzarekin, eskualde mailari zerbitzua emango lioke. Edozein kasutan, usurbildar erabiltzaile zein langileek lehentasuna izango

lukete. Aipatzekoa bestalde, adineko herritarrentzat laster batean zabalduko dela Artzabal gunea berria.

Adinekoek gain, berrehunetik gora inmigrante erroldatuta daude herrian. Ezkutuko egoeran bizi direnak ere badira. “Larrialdiko laguntza jaso behar duten taldea baino, kolektiboak herriari egin diezaioketen ekarpen positibo gisa ulertu behar da”, adierazi du alkateak.

HIRIGINTZA

“Hazkunde neurrigabeari, ezezkoa”

Alokairura bideratu nahi liratekeen **A**etxe hutsak herritartzeko lanean hasia da Udala. Egoera horretan dauden etxebizitzak detektatzen ari da. Bizileku bila dabiltzanei zuzenduta, bestalde aipatu, **lokal komertzialak etxebizitzan bihurtzeko udal ordenantza moldatze** del. Aurrerantzean, babes ofizialeko etxebizitzan, tasatuen, eta alokairu sozialekoen aldeko apustua egingo du Udalak, baina argitu dutenez, “**hazkunde neurrigaberik ez dugu nahi**”. Aurreikusten diren **alokairu sozialeko etxebizitza kopurua** honakoa da: 12 Txaramuntoazpin, 23 Olarriondon eta 20 Sekaño lur eremuan.

Babes ofizialeko etxebizitzan zozketa-ri dagokionez, alkatearen esanetan, “**epirik laburrean zozketa egiteko ahalegintan ari gara**”.

Birpartzelazio proiektuak eta Iberdrolaren subestazioak Udalak nahi



ASTE HONETAN KONPONDU NAHI DA SEKAÑOAKO ETXEEN ARAZOA.

baino gehiago atzeratu dute prozedura.

Sekañoako lur-eremuko etxebizitzan egoera dela eta, lanak etenda daude, eraikigarritasun muga gainditzeagatik eta legedia betetzeko promotoreek kasurik ez dutelako egin. Berbideratze lanak amaitzeaz daude eta aste honetan bertan irtenbidea zehaztea espero dute.

NEKAZARITZA

ETA INGURUMENA

Usurbilek nekazaritza eta nekazal lurrak defendatzeko beharraz mintzo da alkatea. Arau Subsidiarioen azterketa sakona egitearekin batera, aurrekontuetan jaso bezala, arloa babesteko **Nekazaritza eta Ingurumen teknikaria** kontratatu du Udalak.

Oria ibarraren babesgunearen lanke-tarako, **Sariako natur guneko lurren erosketa** prozesua itxi zuten neguan. Guztira, 70.000 metro karratutik gorako lur eremua da. Bertarako osatu beharreko proiektua herritarren parte hartzearekin burutuko da.

Kontsumo eta kutsadura murriztu eta energia berriztagarrien alorrean lan egiteko **Zubietako Lanbide Eskolarekin harreman zuzena** dute. Bestelako energia iturriak baliatzearen aldeko lanketan, **Orbeldiko zentralarekin lanean** ari dira. Aurrera begirako proiektuen artean, **Agenda 21**-ean bildutako proposamenak garatzea legoke.

UDALA ETA

UDAL LANGILERIA

Sindikatuak eta udal taldeek osatutako langileriaren batzordea legegintzaldiaren hasieratik lanean da. Udal aurrekontuetan jaso bezala, arlo honetarako teknikaria ere kontratatu da. Ikuspuntu juridiko zein tekniko-tik, **langileriaren baliabideak kudeatuko** ditu, idazkaritzari lagundu eta kontratazioez arduratzeaz gain.

Laster, lan-poltsa osatzeko deialdia

Bestalde, **Nekazaritza eta Ingurumen teknikaria, Arkitektoa eta Berdintasun teknikaria** jaso dira udal langileen plantilan. Administrari laguntzaile eta eraikin garbitzaile lan-poltsa irekiko da epe laburrean Udalaren jardun arruntean sortzen diren beharrei erantzuteko.

Udaltzain eta Lorezain postuak betetzeko ere deialdia egingo da laster batean.

ATEZ ATEKO

BILKETA SISTEMA

Lehen helburua, birziklagarritasun maila %80 izatera ailegatzeta da. Horretarako, **atez ateko zabor bilketa sistema martxan jartzea ezinbestekoa da** (ontzi marroia-ekin portzentaje kaxkarrak baino ez baitira lortzen). Alkateak gogoratzen duenez, “**ekimenak funtzionatuko badu, herritar guztiok parte hartu behar dugu**”. Dagoeneko lehen bilkurak egiten hasiak dira. **Uda ostean, sentsibilizazio kanpainari ekingo diote**. Urte amaieran jarriko da martxan bilketa sistema berria.

IBERDROLAKO

SUBESTAZIOA

Ugartetxeberri baserriaren eta Harane futbol zelaiaren artean Iberdrolako subestazioa kokatzeko aurreko legegintzaldian zeukaten asmoari ezetz esan zion hasieratik udal gobernu taldeak. “**Baserria eta jolasgunea gertuegi zeudelako**”, adierazi du alkateak. Horren ordez, industria guneren batean kokatu eta Zubietakoa eraisteko proposamena egin zioten Iberdrolari. Baina azkenean, **Zubietako subestazioa berritzea adostu dute** aurreikusitako ia 2.000 metro karratuko lurzorua desjabetu gabe. Lan horiek burutzeko hasieran planteatzen zen milioi bat euroko aurrekontua gainera, 400.000 eurotan jaistea lortu dute.

BESTELAKO

PROIEKTUAK

Ingemar pareko tren pasabidearen proiektua zehazte lanketan ari dira. Txokoaldeko sarrera-irteeraren proiektua ere nahiko aurreratua dago. **Eraikin eta bide publikoetan irisgarritasuna** errazteko egoeraren berri jasoko duen plana abian da.

Santuenean estalkidun gune bat eraikitzea, **ur azpiegiturak berritzea**, eta Zubietatik Aginagaraino **bide-gorri sarea**, beste egitasmo aipagarriak.

Ongi etorri etxera, Olatz

Ekainaren 18an, arratsalde partean, aske utzi zuten Olatz Altuna. Valentzia III espetxetik atera eta etxerako bidea hartu zuen berehala, bere bila joandako senideekin batera. Biharamunean, goizeko 4:30ean iritsi zen Zubietara. Baina herritarrek omenaldia prestatuta zuten Usurbilen eta Zubietatik Oxtapera abiatu zen. Hura ustekabea. 200 lagunetik gora zituen zain. Denak, Olatzi ongi etorria egiteko jaiki ziren. Txalo, dantza eta animoen artean jaso zuten.

Dagoeneko kalean da Olatz Altuna. Ekainaren 18a nekez ahaztuko du Olatzek, 18/98 auziaren ondorioz iazko abenduaren 1ean espetxeratu zuten usurbildarrak. Antza denez, etxekoak izan ziren askatuko zuten albistea jaso zuten lehenak. Olatz bera baino lehenago. Berehala, Valentziako Picasent espetxerako bidea hartu zuten Olatzen senideek. Iritsi orduko kalean zen Olatz Altuna, kafetegi batean zain. Denbora asko galdu gabe, etxerako bidea hartu zuten denek.

6.000 euroko fidantzapean eta behin behineko askatasunean utzi dute kalean. Bake Epaitegira joan beharko du maiz; ezingo du Usurbildik atera. Baina kalean da, alaba txikiarekin. Lagunen berotasunean, etxekoen babesean. Hori gauza handia da, 9 urteko zigor espetxea jaso zuela gogoan hartzen badugu.

Pasa den asteko ongi etorria eta gero, jaietan jasoko du herritarren omenaldia: uztailaren 1ean, Askatasuna plazako txosnetan, 20:00ak aldera.

18/98 auziaren gatibu

18/98 auzian epaitu zuten Olatz Altuna, 46 kiderekin batera. Joxemi



UZTAILAREN 1EAN, ASKATASUNA PLAZAKO TXOSNETAN OMENALDIA EGINGO DIOTE OLATZI, 20:00AK ALDERA.

Zumalabe Fundazioaren atalean epaitua izan zen Olatz eta 9 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. 2007ko azaroaren 30ean, espetxe zigorra jaso zutenak atxilotzeko agindua eman zuen Auzitegi Nazionalak. Artean epaia kaleratu gabe zegoen arren, Auzitegiak akusatuak alde aurretik atxilotzea erabaki zuen, sententzia laster kaleratuko zuela eta auzipetuek ihes egiteko arrisku handia zegoela argudiatuta. Olatz Altunari 9 urteko espetxe zigorra ezarri zion Auzitegi Nazionalak.

Duela 8 urte

atxilotu zuten lehen aldiz

Dena den, 2000ko urriaren 5ean atxilotu zuten Olatz lehen aldiz, Joxemi Zumalabe Fundazioko gainontzeko auzipetuekin batera. Biharamunean aske utzi zuten, orduan ere, 6.000 euroko fidantza ordaindu eta gero.

Olatz Altuna Soziolinguistika Klusterreko langilea da. Besteak beste, NOAUA! Kultur Elkarteko sortzailetako bat izan zen 1996an; hala nola, NOAUA! aldizkariko lehen zuzendaria izan zen.

Euskara ikasi dutenentzat dirulaguntzak

Euskara ikasi dutenentzako dirulaguntzak banatuko ditu Udalak. Oinarriak ekainaren 2ko Aldizkari Ofizialean (GAO delakoan) argitaratu ziren:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/06/02/e0806360.htm>
2007-2008 ikasturtean herritarrei euskara ikasteko ematen zaizkien dirulaguntzen kopuruak nabarmen igo dira:

-Euskara ikasleek: matrikula-kostuaren %80a jasoko dute (iaz %60a).

-Euskara ikasleak, 12 urtetik beherrako seme-alabak dituzten gurasoak: matrikula-kostuaren %100a (iaz %80a).

-Euskara ikasleek (langabetuek): matrikula-kostuaren %100a (80a).

-UEUko ikasleek: matrikula-kostuaren %60a jasoko dute.

Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaituko da (egun hau barne).

Zubietako Udako Txokoen ordainketa

Udako Txokotako izena eman dutenek hilabete bakoitzeko 90eur o sartu beharko dituzte kontu korronte honetan:

2101 0048 21 0004157517 (Kutxa)

Ordaintzerakoan, Kutxako ziurtagiriko azalpenean haurren izena eta abizena jarri behar dira.

Lasarte-Usurbil institutuan matrikulatzeko garaia

Ekainaren 26an hasi eta uztailaren 4an amaituko da Lasarte-Usurbil institutuan matrikulatzeko garaia. Dena den, ekainaren 30ean itxita egongo da institutua.

Matrikulazioa osatzeko, ikastetxeko idazkaritzan matrikula orria jaso behar da eta eskatzen duten dokumentazioarekin batera entregatu behar da.



Miquel Ramon, Puigpunyent herriko (Mallorka) zinegotzi sozialista

“Puigpunyenteko biztanleriaren gehiengoak duen sentsibiltate kolektiboa, hori da onuragarriena”

Puigpunyenten (Mallorka) 2004. urtetik martxan dute atez ateko hondakinen bilketa sistema, eta baita hondakinak konposta bidez tratatzeko modua ere. Usurbilen udazkenean martxan jarri nahi den zaborrak biltzeko modu berriaren haritik, beste herri bateko esperientzia ezagutzeko aukera izan da. Usurbilgo Udalak gonbidatuta, Puigpunyenteko Udaleko zinegotzi sozialista Miquel Ramonek hango esperientziaren berri eman zuen ekainaren 18an Udarregi ikastolan eskaini zuen hitzaldian.

NOAUA! Noiz eta non hasten da Puigpunyenteko esperientzia?

Miquel Ramon. Planteamendua 2003an egin zen. Tokiko Agenda 21 proiektutik sortu zen, eta hori da politena. Emaitzaren arrakastaren gakoak ekimen hartan dago, mota horretako proiektuek herritarren parte hartze, laguntza eta inplikazioa behar baitute. Lan taldearekin lanean hasi ginen ibilbideak, sistema, ordutegiak... definitzen. Lan talde hartan zegoen udal ordezkari bakarra ni neu nintzen. Gainerakoan, antolatutako bilkura haietan 30 herritarrek parte hartzen zuten. Erdia haien kontutik etortzen zen, eta beste batzuk guk gonbidatuta. Ondo hastea zen garrantzitsuena. Atez ateko bilketa sistema berriari, 2004ko azaroaren 14an ekin genion.

Hasieran gaizki, orain primeran

N. Ontziak desagertzen diren egun famatu hartan...

M. R. Euri pixka bat egin zuen egun hartan. Lehen hilabeteen gaizki samar pasa genuen. Bizilagun batzue-



DUELA LAU URTE HASI ZIREN MALLORKAKO HERRIAN ATEZ ATEKO SITEMAREKIN. ESPERIENTZIAREN BERRI EMATEKO HURBILDU ZEN MIQUEL RAMON, AURREKO ASTEAN.

kin, arazo puntualak izaten ziren; poltsak beste leku batzuetan uztea...

N. Baina egoera hura ere gainditu zenuten?

M. R. Une batean ere ez genuen arreta galdu. Prozesua gertutik zaintzen jarraitu genuen. Lehen, bilketa zerbitzua kudeatzeko enpresa bat

genuen. Baina sistema berriarekin, bilketa udal zerbitzuko izatera igaro zen. Langile gehiago kontratatu ditugu. Hasieran langile bakarra zegoen, orain bost dira. Kaleak garbitzeaz ere arduratzen dira. Taldeak oso ondo funtzionatzen du, eta sistemaren funtzionamenduaren arabera kobratzen dute.

“Emaitza onek herritarren autoestimua indartzen dute”

NOAUA. Herritarren parte hartzea eta udal ordezkarien adostasuna, prozesua ondo bideratzeko giltzariak izango ziren, ezta?

Miquel Ramon. Batasun politikoa ezinezkoa da, baina batzuk lagundu eta gainerakoek trabarik ez jartzea posible da. Talde politikoen barnean, gehiago eta gutxiago sinesten zuen jendea zegoen. Hala ere, politikarien adostasuna ez da garrantzitsua. Behin sistema berria martxan jarri eta funtzionatzen badu, herritarrei gaia ondo azaldu zaielako eta haiek ondo ulertu eta barneratu dutelako izango da. Eta bilketa taldeak lana ondo egi-ten duelako. Gai politikoak, garrantzi gutxiena duena da.

“% 82 biltzen ari gara”

N. 2004tik hona zertan aldatu da Puigpunyent?

M. R. Askok aldatu da. Lehen, errauskailura zihoazen 600 tonatik gora hondakin sortzen genuen. Aurten, ez gara 100 tonara ailegatuko. Lehen, hondakinen %20a biltzen

genuen gaika eta aurten, %82a biltzen ari gara. Bestalde, ez dago zaborrak biltzeko ontzirik eta horrek inpaktu handia eragin du ikusmenean. Gu orain beste fase batean gaude. Parke bat sortu nahi dugu, eskola eta kiroldegia artean dagoen konpostatze-plantaren inguruan. Parkea, herriko kultur, paisaia eta hirigintza ondareekin integratuko dugu.

TASAK IGO GABE

“Ez dugu zaborren tasa handitu. Erraustegia asko garestitu denez, horretan ere aurreztu dugu”

Parke hartan ingurumen politikak (hondakinak, uraren kudeaketa, energia fotovoltaikoa), hezkuntza, kultura eta gizarte politikak integratuko dira. Eta baita gure politika garrantzitsua ere, herritarren parte hartzea. Mallorkarentzat eta Europarentzat interesgarria dena.

N. Atez ateko bilketa sistemak ekarritako onuren artean, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

M. R. Lehenak izan eta emaitza onak lortzea, autoestimua indartze garrantzitsua izan da. Ez du galera ekonomikorik eragin. Ez dugu tasa handitu, bost urte daramatzagu eta, tasa berarekin. Erraustegia asko garestitu denez, horretan ere aurreztu dugu. Onura gehiago aipa ditzaket, baina kalte bat bera ere ezin esan. Ez baitago bakar bat ere. Onena zera da; herritarrak sentsibilizatu ditugula ingurumen gaietan. Eta horrek gai sozio ekonomikoekin lotura du. Ekonomiaz jarduten dugunean, aldaera garrantzitsuetako bat eguraldia dela jakin dezagun.

Jakin dezagun orain guretzat merkea dena, geure seme-alabentzat oso garestia izan litekeela. Ondorioz, gauzak ondo egin beharrik daude. Puigpunyenteko biztanleriaren gehiengoak duen sentsibilitate kolektiboa, hori da ziur aski gauzarik onuragarriena.

San Markosko zabortegia aurten ixteko eskatu dute

Errenteriako San Markos zabortegia aurten itxi behar dela dio Ricardo Ortega San Markos Mankomunitateko presidentea, baina datarik ez dago. Hemendik bi astera Gipuzkoatik Bizkaira zaborrak eramaten hastea espero dute.

Aste honetan, San Markos Mankomunitateko aurtengo aurrekontua aurkeztu dute: 23,9 milioi eurokoa izango da, iaz baino %51 gehiago.

“Gauza txikiak egiten, aldatzen joan ahal izango gara”

NOAUA. Guk hemendik zer ikasi dezakegu zuen esperientziaz?

Miquel Ramon. Ikasi dena ikas litekeela uste dut. Beti gauza bera diot, gu Herrialde Katalanetako herri bat bisitatzen hasi ginen. Ez dago lehiatu beharrik. Onak diren udal kudeaketa ereduak hartzea eta norbere herrira ekartzea, oinarri garrantzitsua da. Ez da kopiatu eta itsastea, kopiatu eta egokitzea bai-zik. Guk han egin ditugun gauza asko baliagarriak izango zaizkizuela uste dut. Ez da aldaketa handirik

egin behar, herritarren ohitura txiki batzuk aldatzea baino ez da. Erraza da eta zuen etorkizunean eragin handia izango du. Gauza txikiak egiten joanda, aldatzen joan ahal izango gara. Alde horretatik, edozein kolore politikoko edota edozein klase sozialetako herritarrak berdina gara. Gainera polita litza-teke, hemen, Katalunian, Andaluzian eta Mallorkan egon litezkeen halako irla txikiak gerok eta gehiago izatea. Hedapen fokuak izatea.

Kubak maila hobea duela erakutsi zuen

Kuba-Euskadi arteko judo jardunaldiak gogoangarriak izan dira

Euskadi eta Kuba arteko judo jardunaldiek zapore ona utzi dute. Antolatzaileak pozik egoteko moduan dira. Oiardon jokatutuz zen norgehiagokan, maila bat gorago dagoela argi utzi zuen Kubako taldeak. Txinan jokatuko diren Joko Olinpikoak prestatzera etorri dira kubatarrak.

Gutxitan izaten da horrelako jardunaldietaz gozatzeko aukera. Hitzaldiak eta mahainguruak aberasgarriak izan dira baina ikuskizun ederrera kantxan izaten da beti. Bereziki, horrelako hitzorduetan. Nazioarteko kirolarien aurka lehiatzeko aukera izan dute Euskadi taldeko judo jokalariak, tartean, Usurbil Judo Taldeko hainbat kideek. 10 izan ziren kubatarren eta euskaldunen arteko partidak. Horietatik 7 izan ziren Kubak irabazi zituenak. Baina, kasu hauetan, emaitza da gutxienezkoa. Esteban Arrillaga Usurbil zein Euskadiko Judo Taldeko entrenatzailearentzat, "maila handiko kirolariekin entrenatzeko aukera izan dugu. Guretzat aukera aparta izan da, eta ohore bat". Judo zaleek ere bazuten jardunaldi hauen berri. Eta hori dela eta, jende ugari bildu zen kiroldegian.

Joko Olinpikoetan faboritoak

Euskal Herritik pasa eta gero Kataluniara joango dira kubatarrak. Pekinen (Txinan) jokatuko diren Joko Olinpikoetan faboritoen artean izango dira kubatarrak.



GUTXITAN IZANGO DA TANKERAKO IKUSKIZUNAZ GOZATZEKO AUKERA. ANTOLAKETA ERE, PRIMERAKOA IZAN ZEN. ARGAZKIAK: KORO ARRATIBEL.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL



Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Harrera instituzionala Kubako judo selekzioari

Kubatar judo taldea Usurbilen izan da egunotan. Joko Olimpikoak prestatzera etorri dira eta aurreko astean Euskadiko taldearen aurka lehiatu ziren. Ekainaren 19an, Usurbilgo Udalak harrera beroa egin zien kubatar ordezkariari udalbatza plenoan. Xabier Mikel Errekondo alkateak Kubako selekzioari ongi etorria egin eta eskerrak eman zizkien Euskadiko judo federaziokoei eta bide batez Usurbilgo Judo Taldeari ere, egingandako ahaleginarengatik.

Udaletxean egingandako ekitaldian, emakumearen berdintasunean Usurbilgo Udala egiten ari den ahaleginean, hone-lako jardunaldiak antolatzearen garrantzia nabarmendu zuen Ainara Uribe zinegotziak.

Euskadiko Judo Federazioaren izenean, Oscar Murillok eskerrak eman zizkion Usurbilgo Udalari jardunaldi hauek aurrera eramaten egin duen ahaleginarengatik eta baita Kubako Federazioari ere, Euskadiko Federazioarekin duen aspaldiko harremanari jarraipena eman diolako.

Kubatarrak, pozik gure artean

Esker oneko hitzen ondoren, oroigarri banaketa iritsi zen. Ronaldo Beitia Kubako selekzioako arduradunak jaso zuen lehen oroigarria eta pozik agertu zen bere selekzioak Usurbilen izan zuen harrerarekin.

Oiana Blancori ere, Usurbil Judo Taldeko kide eta Euskadiko selekzioako kirol ordezkariari, oroigarri bat eman zitzaion.

Xabier Mikel Errekondo alkateak bar-kamena eskatu zuen Usurbilgo Udalak orain arte ez diolako Usurbilgo Judo Taldeari lortutako kirol emaitza adinako



UDALETXEAN EGIN ZEN EKITALDIAN, OIANA BLANCO USURBIL JUDO TALDEKO ETA EUSKADIKO SELEKZIOKO KIDEAK OROIGARRI BAT JASO ZUEN.

aitortza egin. Horrela, Lontxo Zubiria zinegotziak eta Kirol Patronatuko lehendakariak oroigarri batzuk eman zizkion Usurbilgo Judo Taldeko lehendakaria den Migel Anjel Martin Bizarrori.

Udalak Kubari egin zion ongi etorri ekitaldia kantu saioarekin amaitu zen. Aurora Parra herrikideak Kubako kanta ezagun bat eta euskarazko habanera bat kantatu zituen.

Igandean bukatuko da Usurbil Cup

Usurbil Cup duela hilabete batzuk hasi zen. Usurbil FT taldeak antolatzen du futbol txapelketa hau.

Azken kanporaketak jokatu dira aste hauetan, eta finalak igande honetan jokatuko dira Usurbilgo frontoian. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera hasiko dira finalak.



Kude nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ondulategia - Goentegia

LABE-GOXO

CLIMATA-T

Klimatizazio erokorak

© 687 858 390
climata_1@yahoo.es

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Otar-Goxo

Elkargak

Zubiaurrenea, 2
© 943 36 55 81
USURBIL

Jaietako ajea pasatzeko onena, Pirinioetara joatea

Urtero bezala, Andatza Mendi Taldeak herriko jaien ondoren Pirinioetara mendi-irteera antolatu du. Aurtengoan, Posets-Eriste (Pirinioak) ingurura joango dira uztailaren 12ko asteburuan. Izena emateko epea datorren astelehenean amaituko da, ekainaren 30ean.

Andatzako kideak uztailaren 12an larunbata abiatuko dira Pirinioetara. Goizeko 6:00etan aterako dira kirol-degi aurretik.

Autobusak Eriste herrian utziko ditu mendizaleak, mendiko botak jantzi eta Angel Orus (Forcau) aterperako bideari ekingo diote (3 ordu inguru). Larunbatean bertan, aterpetik Llardanako lakuetara joan-etorria egingo dute.

Gaua, aterpe batean

Uztailaren 12ko afaria, loa eta gosaria Angel Orus aterpean bertan egingo dituzte. Norberak lotarako zakua eta bi egunetarako bazkaria eraman beharko ditu.

Igandean, Bardamina mendia (3.079 m) igoko dute, aterpetik abiatu eta bost ordu inguruko igoera izango da.

Izen-ematea, 30 euro

Izena ematearekin batera egin beharko da ordainketa (30 euro). Kontuan izan aterpeko plazak mugatuak direla eta aurrez egin behar denez erreserba, hurrenkeraren arabera onartuko direla izen-emateak.

Ekainaren 30ean amaituko da izen-ematea. Ordainketa kontu zenbaki honetan egin behar da: 2101 0069 16 0121883656 (Adierazi izen-abizenak).

Uztailaren 1ean, bilera

Azken xehetasunez hitz egiteko, uztailaren 1ean bilera egingo da Andatzako lokalean, arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

Dena den, bidaia honi buruzko informazio gehiago, Andatza Mendi Taldearen e-posta honetara idatziz eskuratu daiteke:

andatzake@usurbil.com

Eguneko goardiako farmaziak

Ekainak 26, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Ekainak 27, ostirala
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 28, larunbata
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Ekainak 29, igandea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Ekainak 30, astelehena
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Uztailak 1, asteartea
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Uztailak 2, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 3, osteguna
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Uztailak 4, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Uztailak 5, larunbata
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Uztailak 6, igandea
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi
kalea, 8 Hernani 943 33 60 22
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Zubietako bide bazterrak garbitzeko deialdia

Zubietako bide bazterren egoera zein den ikusita, eta aurreko urteetako ohitura berreskuratuz, auzolanean bide bazterrak elkarrekin garbitzea erabaki du Zubietako Herri Batzarrak. Bando bidez eman dute deialdiaren berri.

Garbiketa lanak larunbat honetan egingo dituzte, ekainaren 28an, goizeko 9:00etan hasita.

Eskola Txikian elkartzeko deialdia egin dute. Bide batez, ahal duenak pala edo aitzurra eraman dezala eskatu dute.

Lanean arituko direnentzat hamaiketako izango da, Zubietako Herri Batzarrak eskainia.



PIRINIOETAN DAGO BARDAMINA, 3.079 METRO GARAIERA DUEN MENDIA.
UZTAILAREN 12AN ABIATUKO DA HARA ANDATZA MENDI TALDEA.

Agenda !!

Ekainak 28, larunbata
Atez ateko sistemari buruzko
hitzaldia, 17:00etan Zubietako
frontoi atzeko lokalean.
Antolatzailea: Udala.

KzGunea

Kontsumitzailea sarean (euskaraz)
Ekainak 27 ostirala, 09:00-11:00

www.eustat.es (euskaraz)

Ekainak 27 ostirala, 09:00-11:00

LORTU ZURE ZIURTAGIRIA

-Uztailak 4 ostirala, 16:00-18:00

KzGUNEa, OINARRIZKO

IKASTAROA (EUSKARAZ)

Uztailak 7-18. Asteleheneretik

ostiralera, 16:00-18:00

KzGunea: Kale Nagusia, 37

Tf: 943 36 14 12

Telefono listin berria

Ursurbilgo telefono zenbakiekin
banatutako listinak hainbat
akats zituen. Edizio berri bat egin da.
Nahi duenak, Udaletxean jaso dezake
listin berria.

Ostegun honetan,

batzarra Sutegin

Aldaketa politikoa eta ezker
Abertzalearen proposamena:
etorkizunerako gakoak izenburu
duen hitzaldia egingo da ostegun
honetan, hilak 26, 19:30ean
Sutegin.

Datorren astelehenean, jaietako pintura lehiaketa

Santixabel jaien barruan, Jai
Batzordeak Pintura
Lehiaketaren seigarren edizioa
antolatu du. Saioa ekainaren 30ean
izango da. Parte hartzaileek gai kon-
kretu baten inguruan margotu behar-
ko dute; Usurbilen faltan zer botatzen
duten galderari margolan batekin
erantzun beharko diote.

Lehiaketa 2-16 urte arteko gazteei
zuzendua dago. Irabazleek pinturako
materiala eta diploma eskuratuko
dituzte eta egindako lanak erakusgai
jarriko dira frontoian. Ekimenean
parte hartzeko asmoa duenak, hilaren
30ean agertu dadila pilotalekura
16:00etan. Materiala bertan utziko
zaie.

Sariak, egunean bertan

Margotu beharreko orriaren azpial-
dean jartzeko karpeta edo euskarria
norberak eramatea gomendatzen da.
Eta nahi bada, baita margoak ere.
Sariketa egunaren amaieran izango da,
baina lanek nahikoa kalitate ez badute,
sariak banatu gabe gera daitezke.



ZIRRIBORRO TAILERRAREN
ERAKUSKETA SUTEGIN
AURKITUKO DUGU EGUNOTAN.

Jaietan, Zirriborro

tailerraren erakusketa Sutegin

Zirriborro eskulan tailerrekoak lan
eta lan aritu dira ikasturte osoan.
Santixabeletan, lan horiek ikusgai
izango dira Sutegiko erakusketa areto-
an.

Kultura Aholku

Batzordearen oharra

Aste honetan zen biltzekoa
Kultura Aholku Batzordea.
Arrazoi ugari tarteko, ezin izan dute
Potxoenerako proposamena guztiz bide-
ratu eta, gauzak horrela, bilera atzera-
tzea erabaki du Kultura Batzordeak.

Presoen aldeko

elkarretaratzea

Hilabeteko azken ostiralean
egin ohi den bezala, elkarre-
taratzea egingo da aste honetan
frontoi atzean, Euskal Presoak
Euskal Herrira lemapean. 20:00eta-
tik aurrera, frontoiaren atzean.

teilatuar eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

J. ORBEGOZO

ITURBINTZA · GASA · BERKUNTZA

BIZKARRA 1, I. EBK 943372937 · 659602789

ETXEBIZITZA

- Pisua salgai Muna Lurrán, 2 logela, komuna eta egongela sukaldearekin elkartua. Oso eguzkitsua. 65m2 guztiz berrituak. Altxariak barne, 250.000 euro. 688651103. Agentziarik ez
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, garajea dauka. Abala eskatzen da. Deitu 19:00etatik 21:00ra 607582968 telefonora.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilaguntzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 51.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalezazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.

- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroaren. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- "Agiña Piperrak" enpresak, emakumei zuzendua. Uztailaren erdi aldera hasi eta urrira arte lana egin nahi duenak piperrak ontziratzen azaldu dadila enpresatik goizeko 9:00etatik 13:00era. Laneko ordutegia goizeko 06:00etatik 14:00ak arte izango litzateke, astelehenetik ostiralera.
- Irailean hasteko eta astean hamasei orduz (ordu eta erdi goizean eta bi ordu arratsaldean), bi ume zaintzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. 635 755 666 edo 943 314 709.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Orduategian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

Lan-eskaerak

- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailaren goizez edo arratsaldean haurrak zaintzeko. 621626500
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukeratan lan egiteko. 943 366 710.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan,

Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437

- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bataurreko batzuk galdu genituen ekainaren 20an, arratsaldean, Ardi Beltz garagardotegi parean. Aurkitu badituzue: 943 370 249.
- Euskal artzain txakurra daukagu emateko. Emea da eta bi hilabete ditu. Tel. 943.36.32.43
- Txandal baten jertsea galdu da, urdin argia eta Adidas markakoa. 10 urteko ume baten tamainakoa. 943 37 68 97.
- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tlf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriren umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikiritxa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak hirukote!

Tarta handi bat prestatu ospatzeko, guk jango dugu eta muxu pilo bat lagun eta familiaren partetik!



Nor da sorgintxo hau?

Hara, Malen! Zenbat? Bat! Bi! Hiru! Lau! Bost! Sei!... Ezzzzzz!
Boooost ezta? Ba, gonbidatu ta egingo deude festa! Je, je... Zorionak Iratxe, Asier, Olatz, Xabier, Josune, Oskar, Patxi, Zaloa, Txingu eta xagutxoaren partez.



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**



© 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Eredueak

Administratiboa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Produktzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerian praktikak, ekipamendurik berriena.

MATRIKULA ZABALIK Ekainak 30 - Uztailak 4



ondo pasa pasatu gabe!!





Urte osoko nekea alboratu eta, Blaust!
eginaz, jauzi zaitez Santixabeletako
jai-olatu paregabera!
Bizi jai giroan Santixabelak!
Besarkada eta muxurik sentikorrenak
bertaratu ezin duzuenoi.

Aurrera bolie! Gora Usurbil! Gora Santixabelak!

N!!!

SANTIXABELAK
gehigarri berezia 08





Ondo pasa Santixelak!

*Tradiziozko sarraskia
santixelak osatzen du.*



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31

SAGARDOTEGIA

ANTXETA

Jatetxea

ONDO PASA SANTIXABELTANI

bokatak - eguneroko menuak
plater konbinatuak
bodak eta bataioak

EGUZKITZA 4 - 943 370 344

Ondo pasa Santixelak!

**Festetan, udalekutan eta
oporretan
ondo pasa!**

Osinalde Industrialdea
Telf: 943 36 32 90 / 943 36 10 94
Faxa: 943 36 32 96

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA
uztailak 1 astearte



MASKOTA IGOTZEAREKIN BATERA, MURAL BAT MARGOTUKO DA

Maskotaren igoerarekin batera, mural erraldoi bat egiteko aukera izango da aurtengo jaietan. Ez hori bakarrik, duela 25 urte bezalaxe, herri osoa zintzilikarioekin apainduko da.

Maskota igotzearekin batera, beste ohitura zahar bat berreskuratuko da aurtengo Santixabeletan; mural erraldoia. Sei metro zabalera eta zortzi metro altueradun oihal batean norberari barruak agintzen diona marraztu ahal izango da. Helburua betetzeko antolatzaileek herritarren laguntza behar dute, gaztetxoena bereziki.

Pintaketa lanak egiteko, parte hartzea zenbat eta handiagoa izan, murala lehenago egongo da frontoiko horman zintzilikatzeko moduan. 1983an mila globorekin aineratu nahi izan zuten murala, baina ez zuten guztiz lortu. Aurten antzeko apustu bat egitekoak dira, jaien amaieran.

Zintzilikarioak herrian

Maskota, murala eta herria apaintzeko hirugarren baliabide bat ere prestatzen ari dira; zintzilikarioak. Duela 25 urte, herri osoa apaindu zuten. Kanpandorretik ahalik eta leku gehienetara zabaldu nahi dituzte zintzilikario horiek. Frontoi atzeko plazatxoan bestalde, Udarregi ikastolako ikasleek egindako zintzilikarioak jarriko dira.

Uztailaren batean igoko dute maskota, 19:00ak aldera, petardoan zaratapean. Jaitsi eta erre, uztailaren 6an gauerdian. Baina mural erraldoia margotzen lagundu nahi duenak, adi; uztailaren 1ean du hitzordua, 14:00etan frontoian.



IAZKO MASKOTA HAU IZAN ZEN.

TXUPINAZIOA, JOAN MARI TORREALDAIREN ESKUTIK

Jaietako hasiera emango dien suzuria pizteaz aurten Joan Mari Torrealdairek arduratuko da. Usubilen bizi den soziologo eta kazetariak udaletxeko balkoitik jaurtiko du txupinazioa, uztailaren 1eko gauerdian hain zuzen. Jaia noiz lehertuko zain egongo dira plazan eta inguruetan bilduko diren herritarrak, eta baita danbor jole helduak ere. Arratsaldean kalez kale ibili eta afaldu ostean, danborradaren bigarren saioa eskaintzeko prest izango dira.



JOAN MARI TORREALDAI,
DURANGON SARIA JASOTZEN.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

uztailak 2 asteazkena



SANTIXABEL EGUNEAN, HERRI ANTZERKIA ARTZABALEN

Apirilaren 12an Usurbilen ospatu zen Lehen Kale Antzerki Egunerako egin zuten apustuak harrera bikaina izan ondoren, bigarren saiakera bat egin dute Santixabel egunerako.

Santixabel egunean herri antzerki berri bat ikusteko aukera izango da. Artzabalen izango da antzerki saioa, arratsaldeko 18:00etan hasita. Azken asteotan, Txerrikikoak lanean aritu dira burubelarri.

Ixabel Agirresarobek eta Alex Tellok zuzentzen dute Txerriki Antzerki Taldea. Jaietan, obra berri bat eskainiko digute. Antza denez, komunitate baten gorabeherak azalduko dira bertan.

Azpeitian aritzeko gonbitea

Apirilaren 12an, Lehen Antzerki Egunean aritu zen lehen aldiz Txerriki Antzerki Taldea. Estrainekoa arrakastatsua izateaz gain, haien helburu nagusia bete zuten; herri guneko kaleak aztoratu nahi zituzten eta baita lortu ere. "Txarraka... show", egun hartan eskaini zuten emanaldia, herritik kanpo eskaintzeko gonbita jaso berri dute. Irailean, Azpeitian arituko dira, herri hartan hilean behin antzerkiari eskaintzen dioten egunean.

Kaleko giroa berpiztu

Lehen Kale Antzerki Eguneako osagai garrantzitsuenetako bat izan zen Txerriki Antzerki Taldeak eskaini zuen emanaldia. Hain zuzen, Tellok eta Agirresarobek ekimen hau martxan jartzea erabaki zuten, kaleko bizitza



KALEKO GIROA PIZTEKO SORTU ZEN TXERRIKI ANTZERKI TALDEA.

itzaltzen ari zelakoan. Giroa piztu nahi zuten eta bete-betea asmatu ere. Ekimenak izandako arrakasta ikusita, antolatzaileak jada bigarren edizioan pentsatzen hasiak dira. Euskal Herriko talde amateurrei haien lanak plazaratzeko aukera emango diete berriz ere. Txerriki taldeak ere aurrera egingo du. Lan berri bat prestatzeko aukera ikustean, antolatzaileek herri mailako deialdi irekia egingo dute berriz ere.

"Sarrailaren giltza"

Txerrikiren esperientziak aitzindari-rik badu herrian. Duela hiru urte, "Sarrailaren giltza" herri antzerkia prestatu eta eskaini zen pilotalekuan. Emanaldi haren DVDa uztailaren 3an, gaez botako dute.

BALKOI APAINKETAREN LEHIAKETA

Ekainaren 28an amaituko da balkoi lehiaketan izena emateko epea. Horretarako, Arruti harategira joan behar da izena ematera. Balkoia apaintzeko gaia librea da. Izena ematen dutenei txartel bat emango zaie, balkoian jar dezaten. Hurbilago elkarteak antolatu du lehiaketa eta hiru sari banatuko ditu: lehenentzat, 500 euro; bigarrena, 250 euro; eta hirugarrena, 150 euro. Sariak uztailaren 2an banatuko dira.



FUNERARIA GONZALEZ

Tel: 943.36.21.63
608.16.77.92 eta 660.38.86.52



USURBILGO EHORZTETXEA

Zerbitzu azkarra eta etengabea 24H.
Belatoki guztietan zerbitzuak.
Lekualdaketak, hilarriak, eskelak...
Ospitale zentru eta egoitzetan ere.
Seguru konpainia guztiak

Muna lurra Kalea 8



iosu^{SL}

Tel: 943 371 954 serigrafia
USURBIL

serigiosu@serigrafiaiosu.com



tmz

tanpografia
markatze zerbitzuak

tf.: 943 377 728 USURBIL

- * Txiskeroak
- * boligrafoak
- * enpresa opariak
- * markatze industrialak, ea...

LATAILLADE



ITURGINTZA

Ondoa pasa Santxabeletan!



Iturgintza, gas,
berogintza eta
klimatizazioa



**INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUAK**

ARISTITXO 8 BEHEA

943 363 348 · 609 886 021

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

uztailak 3 osteguna



ASPERTU ARTE JOLASEAN ARITZEKO EGUNA IZANGO DA OSTEGUNEKOA

Herriko jaiek urtero opariz betetako egun bat gordetzen dute haurrentzat. Aurten ere ixabel portatu zaigu, gaztetxoak bezala ziurrenik, eta uztaileko hirugarren egunean, pilotalekuan eta Dema plazan, ohiko joko eta puzgarriak izango dira.

Uztailaren 3an, gaztetxoek egunean, denetariko proposamenak izango dira aukeran. F1 simulagailua ere izango da eta automobilismoaren mundura eramango dituzte gaztetxoak. Hegan egiteko aukera ere eskaini nahi da. Hegazkin onenak ere ez du bere parekorik izango. Lantzagailua jarriko baitute Artzabalen, segurtasun neurriekin beti ere, lur gaina utzi eta airera jauzi egin nahi duenarentzat. Askatasuna plazan berriz, skalestria martxan jartzekoak dira. Etxean askok izan dezaketena baina tamaina handiagoan telegidatu ahal izango dute gustuko automobila. Hori guztia goiz eta arratsaldez.

Gurasoak, lanean

Gaztetxoek eguna ezingo litzateke ospatu, ekitaldi sorta antolatzeko gurasorik ez balego. Hain zuzen, haiek izango dira egun osoak behar bezala funtzionatzeaz arduratuko direnak. Etxera joan beharrean, hurrei frontoian bazkaltzeko aukera eskainiko diete gainera.

Bazkaria norberak etxetik eramaten badu, edaria eta postrea antolatzaileek banatuko dute.

Zirika Zirkus pailazoak

Txikienek bisita berezi bezain gustukoa izango dute bazkalostean, Zirika Zirkus pailazoena. Txokolate gozoa



17.00ETAN FRONTOIAN IZANGO DIRA ZIRIKA ZIRKUS-eko PAILAZOAK.

dastatu ondoren berriz, korrikaldi bat baino gehiago, negar batzuei eta besteiei larritasuna eragingo dieten buruhandi eta erraldoiak kalez kale ibiliko dira. Baita goizean ere. Zaletuek beraz, egun horretan hitzordu bikoitza dute.


Eta bukatzeko, dantzaldia

Amaitzeko, herriko Dj ezagunenak, Larrak, haur eta gaztetxoei zuzendutako emanaldia eskainiko du. Beraz, jai gune guztiak haur eta gaztetxoek erreinuan bihurtuko dira uztailaren 3an.

POLONIAKO DANTZARIEN SAIOA

Poloniatik dantza talde bat etorriko da udan Euskal Herrira. Usurbilen, uztailaren 3an arituko dira, gaueko 22:00etan. Jarraian, "Sarrailaren giltza" herriantzerkiaren proiektzioa eskainiko dute pantaila handi batean.

Txiriboga



*@ndo para
santixabekak*

INTEZA
ILEA PAINDEGI



*Prestatu zaitez Udarako!
Tratamendu bereziak deskontuekin
Ilea paidegi eta estetika zertitzusk
Soldarikund*

943 363 641

ilea paidegi



Eskaintza berria

- ✓ Depilazio iraunkorra
- ✓ Radiofrekuentziaren bidez gaztetze tratamendua

Zubiaurrena 4, USURBIL **943 361 951**

*ando para
santixabekak!!!*



Goiz 8:00 eta 10:30 artean
Tel: 943 36 50 95
Mugiketa: 609 068 118

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA
uztailak 4 ostirala



ASTEBURU ATARIAN, OILASKO BILTZERA

Alkandora zuria, zapia lepoan eta aurrera! Ohiturari jarraituz, goizeko 6:00etan aterako dira oilasko biltzaileak. Bazkalondoa hasiko dira jokoak.

Usurbilen bizirik dirau goizean goizetik hasten den usadio zaharrak; oilasko biltzearenak alegia. Urtero, gazte asko biltzen ditu etxez etxe igarotzen den irteerak. Eguna libre duten askok ez dute hutsik egiten, baina badira egun horretarako espreski lantokian jai eskatzen dutenak ere. Batzuek zein besteek, uztailaren 4an esnatzeko iratzargailua oso goiz jarri beharko dute. 6:00etan txokolate jana egingo dute eta ondoren, irten-go da herriko txoko ezberdinetatik igaroko den oilasko biltzaile taldea. Hainbat etxeetako ateak jo, kantatu eta dantzatu ondoren, bazkaltzerako itzuliko dira berriz ere kaxkora. Indartu eta gero, jokoetan ondo pasatzera. Oilasko biltzen aterako direnek hala amaituko dute goizeko ordu txikietan hasitako jai eguna. Ez ahaztu alkandora zuria, ezta lepora-zapia ere.



GOIZEKO 6:00ETAN TXOKOLATE JANA HASIKO DA ETA SEGIDAN ATERAKO DIRA OILASKO BILTZERA. BAZKALOSTEAN HASIKO DIRA JOKOAK.

BURUHANDIAK ETA XEXENAK ARRATSALDEAN

Oilasko biltzaileen eguna uztailaren 4a izango da. Arratsaldeko 17:30ean, buruhandiak eta erraldoiak aterako dira. Eta arratsaldeko 18:00etan, xexenak aterako dituzte kiroldegi aurreko belardian.



txirriStra

TABERNA



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

ONDO PASA SANTIXABELAK!

Kontseju zaharra, 13
Telf: 943 36 04 66



Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra

943 372 679

649 435 470

kale nagusia 47, behea A

USURBIL AUTOAK

Zerbitzu
Ofiziala



Ondo pasa
Santixabeletan!



KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
Km.0 kotxeak eta selection

Telf: 943 361 079
Faxe: 943 366 292
Aitzearra kalea, 1
Zumartegi industrialdea

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA
uztailak 5 larunbata



FALTAN DIRENAK GOGOAN

“Errepresaliatu politikoak Santixabeletara” lemapean abiatuko da eguerdian egingo den kalejira. Ondoren, zikiro-jana egingo da Askatasuna plazan. Arratsaldeko 19:30ean, omenaldia hasiko da.

Jaian ere, falta direnak gogoa izateko tartea hartuko da. “Errepresaliatu politikoak Santixabeletara” lemapean, kalejira antolatu da herri guneko kaleetan barrena, eguerdiko 12:30etik aurrera. Urtero bezala, zikiro-jana izango da Askatasuna plazan 14:00etik aurrera. Ekitaldi nagusia izango da arratsaldekoa, 19:30ean Askatasuna plazan egingo dena.

Gauetz, bertso-saioa

Gauetz, 22:30ean, bertso saioa egingo da frontoian. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Xabi Paia, Iker Zubeldia eta Jexux Mari Irazu arituko dira. Ondoren, XXXI. Santixabel Bertsoaper Lehiaketako sariak banatuko dira.



GOIZEAN KALEJIRA EGINGO ETA ARRATSALDEKO 19:30EAN EKITALDI POLITIKOA ASKATASUNA PLAZAN.

BTK TALDEAREN KALEJIRA ETA KONTZERTUA

Uztailaren 5ean, bertsolarien saioa eta gero, BTK perkusio taldearen saioa hasiko da. Artzabaldik abiatuko dira eta kalejira ibiliko dira. Goizeko 1:00ean, Laiotz musika taldea arituko da frontoian. Artzabalen berriz, Desiria, Porrón, Cuenta Nueva eta Feos Pero Majos taldeen kontzertua.



Ondo pasa Santxabeletako postak!

MAHUKA

arrapa denda

943 361 106

MIKEL

ARRAINDEGIA

Ondo pasa jaiak!

legatza 18.20

arrakara 2.90

lanotea 2.35

Alperro buru, 1 • 943 366 356

ERROTULUAK

Ondo pasa!

Mota guztietako errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak
Pankartak - Kartelak
Inpresio digitala

kale Nagusia, 10 - Tel/Faxa: 943 36 60 21

Patri

jatetxea

Patri

jatetxea

943 36 27 25

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA
uztailak 6 igandea



LEHEN ALDIZ, ZALDI LASTERKETA EGINGO DA

Oiardo kiroldegi pareko belazea ezohiko lasterketa baten gunean bihurtuko da jaietako azken goizean. Hamabi zaldik parte hartuko dute estrainekoz antolatu den txapelketan. Herriko zein Gipuzkoako beste txoko batzuetatik etorritakoek osatuko dute partaideen zerrenda.

Inguruko herrietan ugaritu egin dira zaldi lasterketa amateurak. Usurbilen ere bada afizioa eta baita lasterketetan parte hartzen dutenak, Imanol Mujika eta bere osaba Xanti Telleria. Bi hauek izan dira lasterketa hau antolatu dutenak.

Partehartzaileak herri ezberdinetatik etorriko dira. Txandakako lasterketak izango dira, launaka irtengo dira. Helmugara iristen diren lehenengo biak finalerako sailkatuko dira. Gainerakoak kontsolazio txandan parte hartuko dute. "Antzeko forma izango du zirkuitoak, zaldiek ere abiadura mantsotzeko aukera izan dezaten", adierazi du lasterketako antolatzaile lanetan dabilen Imanol Mujika herritarrak.

Lasterketa ugari udan

Uda partean han eta hemen ospatu ohi diren zaldi lasterketa askotan parte hartutakoa da osaba Xanti Telleriarekin batera. Baina beti Elgoibarren, Zumaian, Aizarnazabalen edota Orion antolatutako probetan aritu dira. Usurbilen horrelako ekimen bat zergatik ez zuten antolatuko pentsatu zuten. Esan eta egin, aurtengo Santixabeletan, berrikuntzen artean, zaldi lasterketak izango dira eta.



LAUNAKA LEHIATUKO DIRA ETA ONENAK FINALERA SAILKATUKO DIRA.

Kiroldegiaren pareko zelaian

Parte hartzaileak elkarren artean ezagunak dira, txapelketa gehienetan topo egiten dutenak. Denak lehiakide, eta baita lekuan lekuko neurketen antolatzaile ere. Zaletasunak baino zerbait gehiago bultzatu du Mujika ekitaldia antolatzera, argi dio: "zaletasunak ez, pasioak". Oraingoan, Usurbilen. Hitzordua beraz, jaietako azken egunean, goizeko hamaiketatik aurrera.

Xexenak, bezperatan

Kiroldegi pareko belardiak zapaldu ederra hartuko du aurten. Zaldi lasterketez gain, xexenak haien parean jartzen direnen atzetik harrapaketa ibiliko baitira Oilasko Biltzaileen egunean, uztailaren 4an. 18:00etan hasita, itxitura hartako belardi ganean dagoena tentuz ibili dadila. Iazkoen antzekoak baldin badira, bizi askoak izango dira eta.

LAUKOTE
OGITARTEKOAK

Santixabeletan
OGITARTEKOAK
izango ditugu

Puntapaz kalea, 16 - behea (Artzabal)
Telefonoa: 943 36 09 80

urtebetetzeko meriendak
enkargu bidezko tartak

SU-EGURREKO OGIA
OPILAK

*ondo-pasa
santixabeletan*

Astelehenetik larunbatera:
6.00tatik 20.00tara (eguerdian irekita)
Igandeak:
6.00tatik 13.30tara

kaffa

ONDO PASA SANTIXABELETTAN!

- % 100 Kolonbiako kafea alean edo eho berria etxera eramateko "La casa del cafe".
- Batido naturalak.
- Ezeizako tarta edo pastelak enkarguz.
- Sukalde tradizionalen eginiko otorduak prestatzen dira: aurrez eskatuta.

Errokatxiki, 2 - Tel.: 943 24 33 71 - USURBIL

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

uztailak 6 igandea



PEÑAGARIKANOREN OMENEZ

Aizkora munduan aurkezpenik behar ez duen kirolaria da. Orain, 23 urtez gailurrean egon eta gero, erretiroa hartuko du. Jaietan, bere lagunen omenaldia jasoko du.



Berak nahi zuen mailara ezin iritsi eta, errekueratu ezinda, puntako kirol lehia uztea erabaki du Peñagarikano aizkolariak. Ondo ibiltzeko txinparta handia behar da, bestela maila bat atzerago ibili beharra dago.

Urte asko egin ditu gailurrean, baina agur esateko garaia iritsi zaiola uste du.

1995ean hasi eta 2004 urtera arte,

onenen parean izan da.

23 urte eta gero, gazteei bidea utziko die Joxe Miel Peñagarikano aizkolari ezagunak, Usurbilen bizi baina Beizamakoa den aizkolariak.

Palmares ederra

Bere palmaresa, hala ere, ikaragarria da: 1997an Gipuzkoako Aizkolari Txapelketako txapelduna izan zen. 1998an, Urrezko Banakako Aizkolari

Txapelketa eskuratu zuen.

2000. urtean, Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkolari Txapelketako txapelduna.

Donostiako Urrezko Kopa hirutan irabazi zuen eta 2001ean, Nazabalekin batera, Binakako Urrezko Aizkora Txapelketako txapelduna izan zen.

Uztailaren 6an, trontzalarien txapelketa eta gero, omenaldia egingo zaio.

BOLATOKIA BIZIRIK HERRIKO JAIETAN

Jaietan ez dadila bola jokorik falta. Askatasuna plazako bolatokian bola txapelketa jokatu da jaietako azken igandean. Irekia denez, edonork parte har dezake Santixabeletako Bola Txapelketan. 16:30ean hasiko dira partidak.



BURDINEZKO HARRIZULATZAILE TXAPELKETA

10 zentimetroko sakonera duten zulo gehiago nork egin, hortxe dago gakoa. Uztailaren 6an Dema Plazan jokatu da II. Burdinezko Harrizulatzaille Txapelketa. Bi talde nor baino nor arituko dira. Ikusgarria izango da, ez bairik gabe.



TRONTZALARIAK ETA IDI-DEMA, EGUNA OSATZEKO

Harrizulatzailleekin batera, idi-dema izango da aurtengoan ere. Harekin batera, puntuagarria den proba ofizial bat ere jokatu da; Trontzalarien Euskadiko Txapelketa. Usurbilen, finalurrekoak izango dira jokoan.



Rafa

iturgindegia



astelehenetik ostiralera:
10h30-13h30 / 16h30- 19h30
larunbatetan:
10h00- 13h00

Bordaberri kalea 1, 1 beheka • ☎ 943 36 80 04



Ibaiondo

Fisioterapia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 14 - beheka, ezk.

LASARTE - ORIA

☎ 943 370 306

Aguirrezabal Estankoa

Ondo-pasa
SANTIXABELAK

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

Aizpurua Okindegia

Telesforo ardoak



Festetan gure mahaia

ondo hornitu nahi baduzu,

gurean baduzu aukera!

Kale Nagusia, 25 • ☎ 943 36 12 20

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA
uztailak 6 igandea
III →

TORTILA LEHIAKETA ARTZABALEN ETA PIPER JATEA TXOSNETAN

Arratsaldeko 18:00etan jokatuko da III. Patata Tortila Lehiaketa Artzabalen. Askatasuna Plazako txosnetan, ordea, piper-jatea antolatu dute 19:30ean.

Txapelketarik ezin falta jaietan. Hirugarren ediziora ailegatu den patata tortila lehiaketa ospatuko da Santixabeletako azken egunean. Sukaldean norberak duen trebezia erakusteko aukera aparta izango da beraz. Desafioen atalarekin jarraituta, zortziko taldeak osatu eta herri kirol jokoetan indarrak neurtuko dituzte gazteek uztailaren 3an. Eta skate txapelketa ere antolatu dute. Egunez eta gauez, jaiak gaztetasunez bizitzeko eskaintza zabala beraz Artzabal inguruan prestatu dutena.



ARRATSALDEAN PASTORALA SUTEGIN

Pastoral hau 2002an Mixel Etxekopar musikariak Kaliforniara egin zuen bidaiaren esperientziatik sortu zen. Amerikako Estatu Batuetara joan ziren artzainen bizi-modua kontatzen da. Pastoral Suteigiko auditorioan egingo da, arratsaldeko 19:30ean.



MORAU ETA AGOTAK TXOSNETAN

Mora ta Agotak taldeak "Kalamidadeak" izeneko diskoa plazaratu zuen urte hasieran. Etumetak antolatuta, Sutegin aritu ziren duela gutxi. Giroa, ordea, bestelakoa izango da jaietan eskainiko duten saioan. Askatasuna plazako txosna gunean arituko dira uztailaren 6an.



BUKATZEKO, KONTZERTUA ARTZABALEN

Beti bezala, maskota erretzearekin amaituko dira festak. Dena den, jaiak ordu txikiak arte iraungo du. Horretan saiatuko dira uztailaren 6ko gauan Odolaren Mintzoa, Gaueko Itzala eta Joxpakin berbena taldea. Artzabalen, gauerditik aurrera. Ondoren, globo-gerra.



URDAINTZI S.L. Eraikuntzak

Ondo pasa Santixabelak!

943 367 264

649 435 475

649 435 476

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!



BBVA

Errekaitxiki kalea, 1 - 20170 USURBIL Tel: 943 377 155

Xukin

igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

ondo pasa Santixabeletan!

Andoni Errazkin

☎ 663 08 76 71
20170 USURBIL

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

jaiak
III →

ARTZABAL, GAZTEEN TOPALEKU

Goitibehera txapelketa berreskuratuko dute aurtengo jai egitarauan. Berbena punk-arekin batera, bada bestelako berrikuntzarik ere Artzabalgo txosna-gunean; klipa-saioa. Gazteek, jai betean igaroko dute uztaileko lehen astea.

Aurten, klipa-saioa izeneko ekimena prestatu dute Artzabalgo gazteek. Hitz gutxitan esanda, musika entzun eta ikusteko aukera eskaini nahi da uztailearen 4ko gauan. AC/DC, La Polla edota Rolling Stones taldeak igaroko dira Artzabalgo frontoian esekiko den izara txuritik.

Proiektore batean, aipatu taldeen eta beste askoren abestirik onenen bideoklipak ikusi eta entzun ahal izango dira. Baina musika eskaintza askoz gehiago zabal daiteke. Horregatik, antolatzaileek gau hartan norberak etxean dituen musika talde gogokoen ikus-entzunezkoak edo bideoklipak proiektatzeko aukera eman nahi dute.



GAZTEEK KUDEATZEN DUTE ARTZABALGO FESTA-GUNEA.

Larunbat gauean, uztailek 5, berbena taldeen txanda izango da, baina hartu gogoan; berbena-punk-ari eskainitako gaua izango da.

Kontzertuan, "Feos pero Majos" Bizkaitatik datorren talde probokartzailak parte hartuko du. Hasi gerriak astintzen...

GOITIBEHERAK, ASPALDIKO PARTEZ

Urteetako etenaldia eta gero, Goitibehera Txapelketa Santixabel jaietako egitaraura itzuli da. Uztailearen 3ko arratsaldean, Kalezar eta herriko erdigunea lotzen duen bideetako bat itxiko dute; autoentzatz noski, goitibehereri lekua uzteko. Azken hilabeteetan, jada gazte talde batzuk ibilgailuak prestatze-lanetan burubelari aritu dira. Beharko, abiada bizian jaisteko moduko ibilbidea prestatu baitute antolatzaileek. Ikusgarria izango da. Harane futbol zelai atzeko aldapan hasi eta Kalezar auzo aldera jaitsiko dira partaideak. Handik bihurgunea hartu eta Puntapax aldera. Erlojuz kontrako proba izango denez, denbora onena egiten duenak sari ederra jasoko du. Ibilgailu onena ere, saritua izango da.





Ondo pasa
Jaiak!

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta
Etzandako
Solariuma



Mina Lurra 2. © 943 370 462

edaritegia

BORDATXO

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

*ondo pasa
Santixabeletan!!*

Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42



kutxa

zer nahi duzu bihar?

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

egitaraua



Ekainak 21 Larunbata

10:30 Santixabel Judo Txapelketa Oiardo Kiroldegian.

18:00 Euskadi-Kuba emakumezkoen judo topaketa Oiardo Kiroldegian.



Ekainak 29, Igandea

17:00 Areto Futbol Txapelketako finalak Frontoian.

Ekainak 30 Astelehena

16:00-19:00 Haur eta gaztetxoenzako pintura lehiaketa frontoian (materiala bertan banatuko da). Jarraian, sari-banaketa.

Uztailak 1 Asteartea

14:00 Mural erraldoia egitea.
18:00 Buruhandiak.

19:00 Maskota igotzea. Maskotarekin paseo zaratatsua. (Azaldu zaratagailuekin Artzabalera!)

19:00 Askatasuna plazako eta Artzabalgo txosnak irekitzea.

Jarraian, poteo herrikoia.

19:00 Helduen danborrada.

21:30 Herri-afaria Askatasunako txosnetan.

00:00 Txupinazoa: .

Jarraian, helduen danborrada.

01:00 DJ Larra Artzabalen.

Uztailak 2 Asteazkena Santixabel eguna

06:00 Txokolate-gosaria Artzabalen.

Esnadeia txistulariekin.

Egun osoz dultzaineroak.

11:00 Meza Nagusia.

12:00 Umeen danborrada Udaletxe aurretik hasita.

Jarraian, lore eta salda banaketa Dema plazan.

Ondoren, II. Balkoien Apainketaren Lehiaketako sari-banaketa Dema plazan.

16:00 XII. Mus Txapelketa Askatasuna plazan.

17:00 XXXVI. Pilota Txapelketako finalak.

18:00 Antzerkia Artzabalen. Txerriki taldea: Etxe Berri.

19:30 Erraldoi eta buruhandiak, trikitilari eta dultzaineroekin.

21:00 Kontzertua Askatasuna plazan: Hitzipe eta Paraflipling.

24:00 Dantzaldia Askatasuna plazan: Beste Bat taldea.

02:00 Platano dantza Askatasuna plazan.

Uztailak 3 Osteguna Umeen Eguna

10:00 Umeen esnadeia txistulariekin.

10:30-13:00 Ludoteka:

Puzgarriak Dema plazan.

F1 simuladorea eta lanzadera Artzabalgo plazan.

Scalextric-a Askatasuna plazan.

11:00-13:00 Jokoak frontoian.

Ondoren, erraldoi eta buruhandiak txistulariekin.

14:00 Umeen lagunarteko bazkaria frontoian. (Norberak ekarritan)

15:00-17:00 Jokoak eta tailerrak frontoian.

16:00-18:00 Ludoteka:

Puzgarriak Dema plazan.

F1 simuladorea eta lanzadera Artzabalgo plazan.

Scalextric-a Askatasuna plazan.

17:00 Pailazoak frontoian: Zirika Zirkus.

17:00 Herri-kirolak Artzabalen: Koadrilen arteko lehiaketa.

Ondoren, goitibehera lehiaketa.

18:00 Txokolatea frontoian.

Ondoren, buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

19:00-21:00 Dj Larra frontoian.

22:00 Poloniako dantzak frontoian.

Jarraian, "Sarrailaren giltza" herri-antzerkiaren proiektzioa pantaila handian.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

egitaraua



Uztailak 4 Ostirala

06:00 Txokolate-gosaria eta oilasko-biltzaileen irteera.
14:30 Oilasko-biltzaileen itzule-ra eta bazkaria. Ondoren, oilasko-biltzaileen jokoak.
16:30 XVIII. Santixabel Igel Jokoa Gure Pakean.
17:30 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
18:00 Xexenak kiroldegi aurreko belardian.
23:00 Kontzertua frontoian: Xau, Kaotiko eta Despervicio.
24:00 Klipa-saioa Artzabalen.

Uztailak 5 larunbata

Egun osoz dultzainero eta trikitilariak.
10:00 Puntapax KEren IV. Kayak jaitsiera Santuenean.
11:00 Toka Txapelketa Dema plazan.
12:30 Errepresaliatu politikoak Santixabeletara!
kalejira.
14:00 Zikiro-jana Askatasuna plazan. Aurretik eta ondoren Txortains.
17:00 Skate Txapelketa Artzabalen.

19:00 Buruhandi eta erraldoiak dultzainero eta trikitilariekin.
19:30 Errepresaliatuak gogoratuz ekitaldia Askatasuna plazan.

22:30 Bertso-saioa frontoian: A. Egaña, M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, I. Zubeldia, X. Paia eta J.M. Irazu.
Ondoren, XXXI. Santixabel Bertsopaper Lehiaketako sari-banaketa.
24:00 BTK Batukada Artzabaldik abiatuta.
01:00 Laiotz musika taldearekin dantzaldia frontoian.
Artzabalen musika taldeak:



A. Bruño e Hijos S.L.

ondo pasa Sagardo egunean!

ANGULAK ETA ITSASKIAK
Menu ezberdinetako
aurrekontuak egiten ditugu.

Egin ezazu zure eskaera telefonoz:
☎ 943 37 27 88 Usurbil
Legarde Kaleko Zumartegi.



Ganbak, langostinoak, karrakelak,
nekora, lanpernak, buia, zentoiloa,
mixera, kamaroiak, olagarroa, ardo txuria.

65€

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

egitaraua



Desiria, Porrón y Cuenta Nueva eta Feos Pero Majos.

Uztailak 6 Igandea

Esnadeia txistulariekin.
Egun osoz dultzaineroak.
09:00 V. Ur-bataioa Oiardo Kiroldegian, Beterrri-Sub Zubietaren eskutik.
10:00-12:30 Santixabel Bola Txapelketa irekia.
11:00 Zaldi-lasterketa kiroldegi aurreko belardian.
11:30 Meza Nagusia.
Ondoren, herriko dantzarien emanaldia frontoian.

11:30 Aizkolarien 2. mailako Euskadiko finalurrekoa.
11:30 Zarpantzarrak.
14:00 Jubilatuen bazkaria Saizarren.
16:30-18:00 Santixabel Bola Txapelketa irekia.
17:00 Burdinezko Harrizulatazaileen Txapelketa frontoian.
18:00 Trontzalarien Euskadiko Txapelketaren finalurrekoa.
Jarraian, Peñagarikanori omenaldia. Ondoren, idi-dema.
18:00 III. Patata-tortilla lehiaketa Artzabalen.
19:00 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
19:30 "Euskamerikan Artzain"

pastorala Sutegiko auditorioan.
Egilea: Mixel Etxekopare.
19:30 Piper-jatea txosnetan.
20:00 Morau ta Agotak taldea Askatasuna plazan.
22:00 Musika Artzabalen: Gaueko Itzala.
24:00 Maskota erretzea eta traka.
Artzabalen: Odolaren Mintzoa, Gaueko Itzala eta Joxpakin ber-bena. Ondoren, globo-gerra.

Oharra: Sutegiko erakusketa aretoan Zirriborro tailerrekoen lanak egongo dira ikusgai.

Antolatzailea: Santixabeletako Jai Batzordea.

ATXEGA JAUREGIA OSTATUA

ONDO PASA SAGARDO EGUNEAN!

JAIETXEA

- Ezkontzak, jaunartzeak, edozein ospakizunetarako toki egokia
- Eguneroko menuak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

reservas@hotelatxega.com
Aitzearra kalea, Zumartegi poligonoa
Telf: 943 37 11 50
943 37 66 66



**ARDI BELTZ
GARAGARDOTEGIA**

ondo ibili festetan !!

- Entsalada bereziak.
- Plater konbinatuak.
- Eguneroko menua.
- Asteburuko menua.
- Bokatak eta razioak.
- Inportatutako garagardoak.

Puntapex 12 • USURBIL • ☎ 943 367 054

**Euskal Herriak
behar duen
ALDAKETA**

LEK. HERRIALDEETARAKO
autonomiarabakia




*ando puztu
TANTINARELEDAU !*

**Loli
Lizarralde**

Iluspaindegia • Estetika Zentroa
Zubiaurrenea, 5B • Tel.: 943 361 971



Xabier Larrarte Ezeiza
Enpresaritzan Lizentziatua

Zubiaurrenea, 10 Behea
20170 USURBIL

Tifnoa. 943 371 807
Mugikorra. 630 904 365
Faxa. 943 376 341

 **ORBELDI**
ASEGURU ETA INBERTSIOAK S.L.

UDARREGI IKASTOLA



PARTAIDE
IKASTOLAK



On do paga sant xabekak!!!



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika Ibilbidea: USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com